

## HITZATZE

Euskalerrri osoan aintzinatik zetorkigun lurrontzigintzazko lanak aztertzearekin, horrek bedorrekin zekarren ingurua bukatutzat eman dezakegu, une honetan galdurik dugun azulejogintzaren azken berriak jasotzearekin.

Gai hontaz hemengo ekintza saioetan erabili izan diren gauza ugariak azterturik, erraz ikus dezakegu eboluzioko aldietan aintzina aintzinatik egon dela kultur harremanetatik berez sortzen den prolema-tikaren menpekotasuna —anitz formaz, era ugari eta jatorri askotatik hartuak— historia aurretik mendez mendeko etorriak eta eten gabeko ekintzaren aurrerabidean gizaldirik gizaldi jauntsiz gure egunokarte iraunaz; gauzarik naturalena deritzagu honela gertatu beharra, zeren euskaldunen lurraldeak Iberiako Penintsulara agertu ziren era askotako zibilizazio korrontak igarotzeaz tokirik idekienean aurkitzen bai zen korront horien eraginetik kutsatzeko eta Kultur aldakuntzok oinarritzak iduritzen zaizkigu aldian aldiko era bereziak ulertzeko, denboraren joanean euskal zeramikak bere produkziara onartu zituen aldakuntzak (zenbait ikertzaile eritzi hortakoak ez badira ere) harremanetika-koak izan zirela iduritzen zaigu eta lurrontziak heurak urteak zehar aldatuz etorri direla.

Euskalerrriko baxera hoi azterketa asmoak alde batera utziaz, estudioaren oinarritzat direnezkerok, elkarren kidetasunezko ageriak aztertzea alde batera uzten dut, aurreko kapituluetan maiz aipatu direnez; baina, hala ere, hoiere zenbait ondorio gehitu nahi nieke, erraz kon-turatzekoak aurreko orrialdeetan orain adierazi dugunaren ondoren.

Ondore horren lehen erakuspide bezala, euskal zeramikaren eboluzio aldiak oso normalak izan direla egiztapentzat agertzea iduritzen zait, hauek beti edo behinik behin Penintsulako euskaldun biztanlearen inguruari loturik egon direla. Biztanle hoiek, lehen batean -seguru asko beroiek egina— zeramika zahar baina baliagarria, erabilgarria esan ohi dena, forma aldetik xinplea eta apainduraz pobrea, poliki poliki bizipenez ere hobetu zuten, denbora berean, materiaren kalitatea eta eskuartean beharretarako erabiltzen zituzten ontzien estetika bizipen natural horren eskari eta eraginetara bihurturik. Hasera hartako terrakota, gaizki modelatu eta gaizki egosi hura, ongi landutako loza arruntara pasatu zen, astiro astiro geroago ta loza fiñagoak lortzeko; eta horien erabilkeratik etorri zen geroago zeramika sotilagoa lortzea, inguru honetan eta bertako gizonek egina: Euskal alfareriaren produkzio zerrendan ez da falta zeramikazko ekintzetan ezagutzen diren tipo klasikoetarik.

Hala ere, produkzio horren orokortasunean, tipo horietarik bat bera ere ez da izan hain ugari esatekorik; Penintsulako erresuma honetan eskulangileak egin izan dituztenak beste era askotako eta premia-koagoak dira —behar bada probetxutasunari gehiago begiratuak—, hemengoak beste zeregin batzutara gehiago emanak zirelako izan daiteke buztinlangintza horietaz gutiago arduratzea: oroi eskulangintza izan dela, mendeetan zehar, baliagarrizko gauzeri edergarrizko apainduraz erantzun beharrezkoa, merkatarien eskarrietara garai bakoitzeko gizar-teari bere gogoia beteaz. Eta, gure lurretan, zeramikaren alderako behar hori, denbora askoan gutietsirik eta mespresaturik egona da. Langintza hau berez bai zen ekonomi murrizagoetako gizarteen bizibideari lotua.

Bestalde, ikus dezagun bertako nortasunezko estilo berezia eman zezakean zerbitzuzko elementu diferentziazatzailea, Penintsulako beste toki desberdinekin konparaturik: behar bada hemengo lurrontzigtza berari kanpotik zetorkion eraginezkoa izan zitekean, batez ere muga inguruetan ziren beste alfarerietatik, hain urruti ez dauden Nafarroa, Aragoi eta Hispaniako Mesetaren erdialdetik honuntzakoengandik. Baina formen aldetik diseinu guti aurkitzen baldin badugu ere, esan dezakegu, bertako forma jatorrez osatzen duten orokortasunean, Espainian diren erarik gehienak errepresentaturik biltzen direla bertan, behar bada lehen uste batean iduritzen zaigun baino askozaz gehiago.

Agertu dugunaren arabera dago, ondorio naturala den bezala, euskaldun langileei ukatu ezinezko eskulangintzarako trebetasuna, baxeragintzako estilo edo era guzietan hain nabarmen agertzen zaigunaren arabera, baita ere ekintza honen mailarik bikain eta fiñenean ere; baina, hala ere, zerao industrializatua den portzelanarik berezienen lantegietatik aparte ere. Gaur egun baxeragile guti batzuk besterik ez dira

gelditzen euskal alfarerian, gure hiru erresuma hoietan, heuren langintza gainbeheraka ari zaigularik. Beren herri langintzaz, gauza guti batzuk besterik ez zaizkigu gelditzen lantegi horien lekukotasunez, gorago ko beste maila batzun zeregin orokorragoeri lotutako eginkizunak onarturik eta beraien gisara ari bai dira.

Gainera, uste dugu, oinarri segurutik ari direla, adierazi dugun gertaera, batez ere, gaur egungo kultur giroa eta kontsumoko gizarte ekonomia berezi baten eraginera makurturik. Multzo hau bere orokortasunez ematean, kontuan hartu behar da, zeramika produktoen kalitatean, bitasunak banandu ditu geroago ta gehiago, ez bakarrik aurrerako ekintza berean, baizik alfareriaren eginkizun agurgarria bera, aintzinatik hain sakon errotua, Penintsulako ohituretan eta Penintsulako herri guzietan. Gogotik nahi duguna da ekintza hoiiek berriz piztea oraingo egoera gaitzaren aurrean lurrontzigileek erresuma hoietan eta Espainia guzian aurkitzen duten egoera latzaren kontra; eta hori opa dugu kartuki, lurrontzigintza hau berbiztea bertako estilo zaharrez eta aintzinakoak ohi zuten bezala seiluz markaturik, zeren beretatik, gure herriarentzat etnografi baliozko ospe garrantzitsurako diren parteetarik bat hortik datorkigunez.

Oso atsegingarria litzaiguke ahalik lasterren berbizten ikustea, Gasteizko zeramika produkziozko etxea bezala, XVIII. mendean ekintza handikoak zirenez, edo geroxeago Busturin edo Pasaian jarritako meritu handiko portzelanagintzara heldu ziren bezala, bertako eta herbesteko merkatarien eskariz hain onartuak izan zirenak, gure euskaldun herriaren gogora katiaturik. Oparizko berbizte hortatik —lehenaren eta geroaren arteko zubi interesgarria sortuaz— hortik letorke, zalantzarik gabe, prestijiozko eraberritzea eta Euskalerrriak betidanik izan duen jatorrizko langintzak oro bere aurrerazaletasunez eraman ditzan.

*Juan San Martin*